

2023KO XXXXAREN XX(E)KO XXX DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

AUDIODESKRIBAPEN ETA AZPITITULAZIOKO ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA

1. Identifikazioa.

Izena: Audiodeskribapena eta Azpitoluzioa.

Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.

Iraupena: 550 ordu.

Lanbide-arloa: Irudia eta Soinua. (Soilik Lanbide Heziketaren irakasgaien sailkapenaren ondoretarako).

Jakintza-adarrak: Arteak eta Giza Zientziak. Gizarte-zientziak eta Zientzia Juridikoak. Arkitektura eta Ingeniaritza.

ECTS kredituak: 30.

Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: P-5.5.4.

2. Espezializazio-ikastarorako sarbidea.

Titulu hauetako bat edo ikasketetarako baliokidea den titulua edukitzea:

– Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioko goi-mailako teknikariaren titulua, apirilaren 22ko 337/2013 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioko goi-mailako teknikariaren tituluar dagokion curriculumaz ezartzen da.

– Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioko goi-mailako-teknikariaren titulua, uztailaren 2ko 374/2013 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioko goi-mailako teknikariaren tituluar dagokion curriculumaz ezartzen da.

3. Lanbide-profila.

3.1. Konpetentzia orokorra:

Espezializazio-ikastaro honen konpetentzia orokorra da ikus-entzunezko lanen, zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien audiodeskribapena eta azpitoluzioa egiteko proiektuak planifikatzea, ebaluatzea eta egitea, baita audiodeskribapeneko eta azpitoluzio- gidoiak egitea ere, prozesuak kontrolatuz eta mezuaren edukia, forma eta kalitatea errespetatuz; hori guztia, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

3.2. Lanbide-ingurunea:

Espezializazio-ikastaro hau gaintitu izana egiaztatzen duen ziurtagiria lortu duten pertsonak ikus-entzunezkoen, zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien sektorean jardun ahal izango dute.

Honako hauek dira lanbide eta lanpostu esanguratsuenak:

– Ikus-entzunezko lanen eta zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien audiodeskribapeneko proiektuen gidoilaria.

– Ikus-entzunezko lanen eta zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien azpitoluzioaile.

– Ikus-entzunezko lanen eta zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien audiodeskribapeneko proiektuen esataria.

– Audiodeskribapeneko gidioen berrikuslea.

– Azpitoluzioen berrikuslea.

3.3. Hauek dira espezializazio-ikastaro honen kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

a) Grabatutako materiala aztertzea, bai eta ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren gidioa edo libretoa ere, bezeroen enkarguaren bideragarritasuna baloratzeko.

b) Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako azpitoluak idaztean erabiliko diren elkarrizketei, off-eko ahotsari, musikari eta soinu-efektuei, denbora-kodeei, parte hartzen duten pertsonaiei eta kolore-esleipenari buruzko dokumentazioa lantzea.

c) Ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren eszenen xehetasunei eta deskribapenei buruzko dokumentazioa lantzea, hainbat iturritako informazio gehigarria bilduz audiodeskribapenean integratzeko.

d) Audiodeskribapenaren gidoiaren testua idaztea, ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren estiloa, testuingurua, soinu-espazioak eta erritmoa errespetatuz, azken produktuaren soinu-bandan integratzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.

e) Ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren azpitoluak egitea, mekanografiako, estenotipiako, ahots-ezagutzako edo berresateko teknikak erabiliz, bistartzeko eta irakurketa-abiadurako parametroetara egokituz, azken produktuan behar bezala integratzeko eta sinkronizatzeko, indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera.

f) Audiodeskribapenaren gidoiaren testua ikus-entzunezko lanari edo zuzeneko ikuskizunari behar bezala egokitzen zaiola egiaztatzea, itsuek eta ikusmen-desgaitasuna dutenek hura ulertzen dutela ziurtatzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.

g) Azpitolua behar bezala idatzia dagoela eta ikus-entzunezko lanari edo zuzeneko ikuskizunari behar bezala egokitzen zaiola egiaztatzea, entzumen-desgaitasuna dutenek hura ulertzen dutela ziurtatzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.

h) Audiodeskribapenaren gidoiaren lokuzio neutroa egitea, hura muntatzeko, azken postproduktzioarako eta zuzenean abiarazteko.

i) Azken produktua (grabatua edo zuzenekoa) berrikustea, bezeroei entregatzeko eskakizunak betetzeko, baldintza tekniko eta akustiko egokietan eta helburuko baliabide desberdinetara egokitutakoetan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

j) Ikus-entzunezko komunikabideen eta irisgarritasun unibertsalaren araudia arautzen duen indarreko legeria betetzea.

k) Lan-egoera berrietara egokitzea, lanbide-inguruneari buruzko ezagutza zientifiko, tekniko eta teknologikoak eguneratuta mantenduz, prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntzan dauden baliabideak kudeatuz, eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz.

l) Norberaren eskumeneko esparruan, egoerak, arazoak edo gorabeherak ekimenez eta autonomiaz ebaztea, sormena eta berritasuna erabiliz eta norberaren eta taldekideen lana hobetzeko gogoz.

m) Lantaldeak antolatzea eta koordinatzea, arduraz jokatuta, lantaldeon garapena gainbegiratzuz, harreman onak izanez, lidergoa hartuz eta lantaldean sortzen diren gatazkek konpontzeko irtenbideak proposatuz.

n) Egokiro komunikatzea pareko kideekin, goragokoekin, bezeroekin eta bere ardurapeko langileekin, eta, horretarako, komunikatzeko bide eraginkorrak erabiltzea, informazio eta ezagutza aproposak transmititzea eta lan-eremu horretan esku hartzen duten pertsonen autonomia eta eskumena errespetatzea.

ñ) Norberaren eta lantaldearen lan-garapenean ingurune seguruak sortzea, laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioarako prozedurak gainbegiratzuz eta aplikatuz, betiere enpresaren arautegian eta helburuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

o) Produktzioako edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitatea kudeatzeko prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» aplikatzea eta berrikustea.

p) Norberaren jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.

4. Espezializazio-ikastaroaren irakasgaiak

4.1. Helburu orokorrak:

- a) Desgaitasun sentzoriala duten pertsonen premiak identifikatzea.
- b) Audiodeskribapen-gidoien proiektuen bideragarritasuna ebaluatzea, ikus-entzunezko generoen eta zuzeneko ikuskizunen ezaugarri teknikoak eta itsuen eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen beharrak aztertuz.
- c) Azpitoluak egiteko proiektuen bideragarritasuna ebaluatzea, grabatutako ikus-entzunezko materialaren edo zuzeneko ikuskizunaren ezaugarri teknikoak eta itsuen eta entzumen-desgaitasuna duten helburuko pertsonen premiak aztertuz.
- d) Ahozko berbaldiak eta testu idatziak ekoizteko, ulertzeko eta antolatzekeo estrategia eta soluzio teknologikoak identifikatzea eta aplikatzea, eta norberaren nahiz besteen berbaldian akatsak detektatzeko gai izatea.
- e) Testuetatik informazio zehatza ateratzea, hiztunak komunikatzeko duen asmoa identifikatuz eta komunikazioaren barruko informazio-osagaia ezagutzea alderdi prosodikoetan, hala nola intonazioan, etenaldietan edo tonuan.
- f) Ideiak aurreratzea, informazioa atxikitzea eta berbaldiaren eta testuinguruaren arteko harremana identifikatzea, lana globalki ulertzeko.
- g) Zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien audiodeskribapena planifikatzea, haien ezaugarriak balioetsiz.
- h) Lanaren edo ikuskizunaren ezaugarriak eta parte-hartzaileei buruz hainbat iturritatik lortutako dokumentazioa integratzea, azken produkturako garrantzitsua dena balioetsiz.
- i) Ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren sekuentzien eta eszenen laburpenak eta sinopsia egitea, alderdi artistiko eta narratiboak aztertuz.
- j) Grabatutako ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko ikuskizunak aztertzea, soinu-mezuko hutsarten (bunbuiloak) iraupenak eta baldintzak baloratuz, audiodeskribapen-gidoia idazteko.
- k) Audiodeskribapen-gidoiak idaztea, estilo artistikoak, ikus-entzunezko generoak eta zuzeneko ikuskizunak balioetsiz, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen mezua ulertzen laguntzeko.
- l) Grabatutako edo zuzeneko ikus-entzunezko produktuak aztertzea, elkarrizketek, off-eko ahotsari, musikari eta soinu-efektuei buruzko informazioa zein bitartetan txertatu behar den detektatuz, eta azpitoluak irudiaren hondoari buruz duten irakurgarritasuna aurreikusiz.
- m) Grabatutako edo zuzeneko ikus-entzunezko produktuak off-eko ahotsa eta pertsonaien elkarrizketak aztertzea, mezuaren intenzionalitatea eta erabilitako argota detektatuz, haiek denboraren joatera, irakurketa-abiadurara eta azpitolazio-araudira egokituz.
- n) Grabatutako edo zuzeneko ikus-entzunezko produktuak eta ikuskizunak soinu-mezuak aztertzea, gorrentzat eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat azpitoluen testuak egiteko.
- ñ) Grabatutako ikus-entzunezko lanetako eta zuzeneko ikuskizunetako azpitoluak idaztea, soinu-mezuaren osotasuna mantenduz eta erabiltzaile izan daitezkeen pertsonen irakurketa-abiaduraren, bistaratzearen eta sinkronizazioaren parametroetara eta azken produktuaren erritmo narratibora egokituz.
- o) Audiodeskribapen-gidoiak denbora-kode ezarriekin eta zuzeneko lan edo ikuskizunaren garapenarekin bat ote datozen ebaluatzea.
- p) Ikus-entzunezko lanen eta zuzeneko ikuskizunen hainbat alderdi aztertzea: legeriari eta araudiei buruzkoak, ulermenari buruzkoak eta teknikoak.
- q) Audiodeskribapen-gidoien hainbat alderdi aztertzea: legeriari eta araudiei buruzkoak, ulermenari buruzkoak eta teknikoak.
- r) Azken produktuan integratutako azpitoluen ulermena ebaluatzea, kontuan hartuz zuzentasun ortografikoa, sintaxia eta mezuak ikus-entzunezko testuinguruan pertsona guztientzat duen egokitasuna.
- s) Zuzeneko eta grabatutako audiodeskribapen-gidoien lokuzioak egitea, erritmoa eta intonazioa zuzeneko ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren garapenera egokituz.
- t) Audiodeskribatutako ikus-entzunezko lanak ebaluatzea eta gainbegiratzea, kontuan hartuz ulergarritasun akustikoaren eta soinu-mezuaren ulergarritasunaren alderdiak, bai eta bezeroen

enkargua ere.

u) Ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak aztertzea, helburuko azken pertsonaren irisgarritasuna erraztuz.

v) Sektorearen bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotutako ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratzeko gogoari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.

w) Sormena eta berrikuntzarako gogoia garatzea, lanarekin eta norberaren bizitzarekin lotutako prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.

x) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea, eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.

y) Lidergo, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.

z) Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea, transmititu beharreko edukietara, helburura eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, komunikazio-prozesuetan eraginkortasuna ziurtatzeko.

aa) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.

bb) Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak hobetzeko.

4.2. Lanbide-moduluak.

KODEA	LANBIDE-MODULUA	ORDU-ESLEIPENA
5007	Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen audiodeskribapena	169
5008	Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen azpigituluak	143
5009	Lokuzioa, autoretza eta audionabigazioa	78
5010	Lantokiko prestakuntza	85
E314	Prestakuntza Praktiko Duala Enpresan	75
GUZTIRA		550

4.3. Lanbide-moduluak: Ikaskuntzaren emaitzak, Ebaluazio-irizpideak eta Edukiak.

1. lanbide-modulua: Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen audiodeskribapena.

Kodea: 5007

Iraupena: 169 ordu.

ECTS kredituak: 9.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

1IE. Audiodeskribapen-gidoien proiektuen bideragarritasuna ebaluatzen du, grabatutako ikus-entzunezko materialaren, ekitaldiaren eta zuzeneko ikuskizunen ezaugarri teknikoak eta edukiak aztertuz eta ikusmen-desgaitasuna duten helburuko pertsonaren premiak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Produktuaren ikus-entzunezko edukia lan egiteko formatu egokian jarri da, tamainaren, kalitatearen, formatuaren eta euskarriaren ezaugarriak kontuan hartuta.

b) Landuko den ikus-entzunezko produktuaren edukia aztertu da, audiodeskribapen-araura

egokitzeko aukerak kontuan hartuta.

c) Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen premiak aztertu dira, audiodeskribapen-proiektuak egiteko prozesuetan aplikatuz.

d) Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen pertzepzioaren baldintzak eta ikus-entzunezko mezuak ulertzeko dituzten zailtasunak balioetsi dira.

e) Audiodeskribapen-produktuak egiteko etapak eta prozesuak aztertu dira.

f) Audiodeskribapenean parte hartzen duten pertsonen funtzioak aztertu dira (gidoilariak eta esatariak, besteak beste).

g) Audiodeskribapen-proiektuei aplikatutako bideragarritasun teknikoaren txostenak egin dira. Edukiak: Audiodeskribapen-gidoien proiektuen bideragarritasuna ebaluatzea.

– Grabatutako ikus-entzunezko produktuaren ezaugarri teknikoak aztertzea audiodeskribapenerako. Laneko formatuak.

– Zuzeneko ekitaldien eta ikuskizunen ezaugarri teknikoak aztertzea.

– Tamainaren, kalitatearen, formatuaren, euskarriaren eta helburuko publikoaren ezaugarriak.

– Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen premiak. Irisgarritasun-eskakizunetara egokitzea.

Ikusmen-gaitasuna eta -zorrotasuna (hurbiletik eta urrunetik). Ikuseremua.

– Audiodeskribapen-produktuak egiteko etapak eta prozesuak.

o Proiektuaren tipologia. Produktuaren propietateak: mezu-hutsarteen kopurua eta hedadura, programaren iraupena, besteak beste. Emisio-bitartekoa: zinema, telebista, emisio jarraituko zerbitzuak eskaintzen dituzten webguneak, besteak beste. Entregatzeko epeak.

o Helburuko pertsonaren ezaugarriak.

o Audiodeskribapeneko arau teknikoak ezarritako jarraibideak.

– Audiodeskribapen-produktuaren propietateak, parte hartzen duten profesional teknikoaren funtzioak eta kopurua zehazten dituztenak. Mezu-hutsarteen kopurua eta hedadura. Programaren iraupena.

– Audiodeskribapen-produktuak egiten parte hartzen duten profesionalen funtzioak.

– Audiodeskribapen-proiektuen bideragarritasunari buruzko txostenak egitea. Denbora-bitarteen zabalera aztertzea. Denbora-bitarteen kopurua. Gaia, kostua eta zabalkundea.

21E. Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien audiodeskribapena planifikatzen du, haien ezaugarriak eta prozesuaren etapak ebaluatuz eta gidoi egituratuak edo inprobisatuak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zuzeneko erreprodukzio-agertokia izango denaren ezaugarriak aztertu dira (TB, antzerkia, kongresuak, besteak beste), eta gidoi egituratuak eskura izango diren edo ez.

b) Ikuskizuna alde aurretik grabatua edo *in situ* ikuskatzean bildutako informazio gehigarria aztertu da, audiodeskribapen-prozesua planifikatzeko.

c) Zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien audiodeskribapen-proiektuaren produkzio-fase bakoitzean behar diren baliabide materialak balioetsi dira, hala nola lokuzio-kabinak eta soinu-lineak, besteak beste.

d) Ikuskizunaren edo ekitaldiaren audiodeskribapena garatzeko behar diren gidoilariak eta esatariak zehaztu dira.

e) Proiektua zatitzeko erabili den produkzio-sekuentzia, bloke edo unitate koherente bakoitzerako behar den denbora zenbatetsi da.

f) Zuzeneko audiodeskribapena erreproduzitzeko/zabaltzeko sistemarekiko konexioaren eta integrazioaren ezaugarriak aztertu dira, baita eskuzko edo lagundutako sinkronizazioarenak ere.

g) Zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien audiodeskribapen-plana landu da, ezarritako aurrekontura egokituz eta sor daitezkeen kontingentziak aurreikusiz beste soluzio batzuk barnean hartuz.

Edukiak: Zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien audiodeskribapena planifikatzea.

– Audiodeskribapen-gidoien zuzeneko erreprodukzioaren ezaugarriak aztertzea. Zuzeneko telebista-programak, antzerki-lanak, kongresuak eta beste ekitaldi batzuk.

- Zuzeneko ikuskizunen prestaketan bildutako informazioa aztertzea. Prestakuntza. Entseguak.
- Ikuskizunaren edo ekitaldiaren audiodeskribapenaren produkzio-etapak aztertzea.
- Zuzeneko audiodeskribapen-proiektuaren preproduzioan beharrezkoak diren teknikarien eta baliabide materialen premiak egokitzea.
 - Teknikariak. Lanbide-gaitasuna eta -esperientzia. Gaia ezagutzea.
 - Lokuzio-kabinak, soinu-lineak, besteak beste. Proiektu bakoitzaren ezaugarrietara (egingo den lekua, agertokiaren dimentsioak, klimatologia, besteak beste) nola egokitzen den balioestea.
- Zuzeneko audiodeskribapena erreproduzitzeko/zabaltzeko sistema eskuz edo lagunduta integratzea eta sinkronizatzea.
- Zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien audiodeskribapen-planak egitea. Alternatibak.

3IE. Audiodeskribatu beharreko ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren eszenei buruzko dokumentazioa lantzen du, hainbat iturritatik lortutako informazioa aztertuz eta ikus-entzunezko mezuaren alderdi narratibo eta artistikoak balioetsiz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko materiala formatu eta kodeketa bateragarria bihurtu da, hala badagokio.
- b) Kalitate handiko audio-pista modu independentean jarri da.
- c) Grabatutako ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren (zuzenekoa eta geroratua, dagokionaren arabera) gaia, islatutako zuzendaritzaren asmoak eta erabilitako baliabide zinematografikoak aztertu dira.
- d) Ikus-entzunezko lanaren edukia aztertu da, alderdi dramatikoak eta plastikoak bereiziz eta erritmoaren, bilbearen, estiloaren, hizkuntzaren eta emozioen ezaugarriak baloratuz.
- e) Gidoiaren egitura aztertu da, soinu-hutsarteak (bunbuiloak) eta ikus-entzunezko lanean egindako zuzenketak kalibratuz.
- f) Erabilitako musikaren gaia eta intentzionalitatea aztertu dira, haiek audiodeskribapen-gidoian behar bezala transmititzeko.
- g) Ikuskizuna alde aurretik grabatua edo *in situ* ikuskatzean bildutako informazio gehigarria aztertu da.
- h) Ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren laburpena deskribatu da, osagai bereizgarriak adieraziz.

Edukiak: Audiodeskribatu beharreko ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren eszenei buruzko dokumentazioa lantzea.

- Formatuak bihurtzea. Hala badagokio, gidoia egiteko erabiltzen den aplikazioaren berezko formatura bihurtzea.
- Audio-pista modu independentean lortzea. Kalitate handiko audio-pista.
- Ikus-entzunezko lanaren edukiaren aztertzea audiodeskribapena egiteko. Alderdi dramatikoak eta plastikoak.
 - Laneko hizkuntza aztertzea. Emozioak.
 - Gidoiko bunbuiloak aztertzea eta kalibratzea.
 - Musika-bilbean, abestietan eta efektuetan dagoen intentzionalitatea. Irudiarekiko erlazioa. Erritmoa, bilbea, estiloa eta hizkuntza.
- Audiodeskribatu beharreko ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren laburpenak deskribatzea.
 - Audiodeskribapenari buruz indarrean dagoen araudi teknikoak aplikatzea.
 - Soinu-bandaren multzoan audiodeskribapenak duen pertzepzioaren ezaugarriak.
 - Audiodeskribapenaren ulergarritasuna, soinu-bandaren hondoaren arabera.
 - Produktuari buruzko informazio gehigarria biltzea: gaia, zuzendaritza-lanak eta beste batzuk.

4IE. Ikus-entzunezko lanen audiodeskribapen-gidoiak egiten ditu, ikus-entzunezko mezuaren estiloa, testuingurua eta erritmoa aztertuz eta soinu-mezuko hutsarteen (bunbuiloak) iraupenera eta baldintzetara egokituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Audiodeskribapenaren egitekoa aztertu da, ikus-entzunezko lanean parte hartzen duen osagai dramatiko gisa.
- b) Ikus-entzunezko lanaren testuingurua, narrazio-estiloa eta intentzionalitatea aztertu dira, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen behar bezala transmititzeko.
- c) Grabatutako ikus-entzunezko lanen audiodeskribapen-gidoiak idatzi dira, lokuziorako eta bideoan eskuragarri dagoen denborarako egokituz.
- d) Audiodeskribapen-testuak egitean audiodeskribapen-teknika narratiboak eta deskriptiboak aplikatu dira.
- e) Informazio-bunbuiloak audiodeskribapen-softwarea aplikatuz idatzi dira, bideoaren denbora-kodeari dagozkion denbora-markak adieraziz.
- f) Informazio bisuala objektiboki deskribatu da, irudiak erakusten duena zentsuratu edo aldatu gabe eta bilbea azaldu edo aurreratu gabe, ikuspegi subjektiborik ez transmititzeko.
- g) Ikus-entzunezko lanean dauden audiodeskribapenean eta azpitu interlinguistikoetan txertatu beharreko testuak idatzi dira, ikus-entzunezko lanaren erritmoa errespetatuz eta ikus-entzunezko lanaren lengoia zinematografikoari lagunduz.

Edukiak: Ikus-entzunezko lanen audiodeskribapen-gidoiak egitea.

- Audiodeskribapena ikus-entzunezko lanaren osagai dramatiko gisa aztertzea. Narrazioaren erritmoa.
- Arau ortografikoak eta gramatika-arauak. Audiodeskribapeneko arau teknikoak dekretatutako jarraibideak.
- Grabatutako ikus-entzunezko lanen audiodeskribapen-gidoiak aplikatutako softwarearen bidez idaztea.
- Testua lokuziora eta ikus-entzunezko lanean eskuragarri dagoen denborara egokitzea. Mezu-hutsarte erabilgarriak. Mezuaren edukia laburbiltzen duten hizkuntza-baliabideak.
- Audiodeskribapen-teknika narratiboak eta deskriptiboak. Lana zentzuz ulertzea.
- Audiodeskribapen-bunbuiloak eta denbora-kodea. Gidoiko denbora-kodea bideoarekin sinkronizatzea. Denbora-markak sartzea.

51E. Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien audiodeskribapen-gidoiak egiten ditu, emandako erreferentziazko informazioa balioetsiz eta ekitaldian zehar gertatzen diren kontingentzietara egokituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Audiodeskribapenaren egitekoa aztertu da, zuzeneko ikuskizuneko parte-hartzaile aktibo gisa.
- b) Laguntzako softwarea aplikatu da zuzeneko ikuskizuneko gidoia sortzeko eta audiodeskribapen-klip aurregrabatuak abiarazteko.
- c) *In situ* ikusi dira ikuskizuneko edo ekitaldiko entseguak, audiodeskribapen-gidoia berri idatziz aplikatutako zuzenketen arabera.
- d) Ekitaldiaren audiodeskribapen-gidoia gidoi egituraturik gabe idatzi da, alde aurreko grabazio batetik abiatuta edo haren arduraduneri kontsulta eginez eta ekitaldiaren egitura ahalik eta xehatuena landuz.
- e) Zuzeneko ikuskizunaren audiodeskribapeneko gidoi-eskaleta egin da, transmititu beharreko informazioa eta haren denborak karakterizatuz.
- f) Audiodeskribapen-gidoia idatzi da, eszenografiak ematen duen informazioa objektiboki errespetatuz, bilbea azaldu gabe eta ikuskizunaren garapena aurreratu gabe.
- g) Zuzeneko ikuskizunaren audiodeskribapenean txertatu beharreko testuak idatzi dira, jarduketaren erritmoa errespetatuz.
- h) Ikuskizunaren eszenografiaren, egituraren eta fitxa teknikoaren ezaugarri esanguratsuenen deskribapena idatzi da, zuzeneko lana hasi aurretik transmititzeko.

Edukiak: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien audiodeskribapen-gidoiak egitea.

- Audiodeskribapena zuzeneko ikuskizunaren osagai gisa aztertzea.
- Laguntzako softwarea erabiliz ikuskizunaren gidoia sortzea.
 - Arau ortografikoak eta gramatika-arauak.
 - Ikus-entzunezko edukia duten programa grabatuen audiodeskribapenerako arau teknikoak ezarritako jarraibideak.
- Espazio eszenikoaren eta jantzien ezaugarri esanguratsuak, aldez aurretik transmititzeko.
- Zuzeneko ikuskizuneko entseguetan zehar audiodeskribapen-gidoia berregitea.
- Ekitaldiaren egitura xehatua egitea. Denborak.
- Zuzeneko ikuskizunaren audiodeskribapeneko gidoi-eskaleta egitea.
- Gidoia bideoarekin sinkronizatzea. Denbora-kodea.
- Zuzeneko ikuskizunaren audiodeskribapenean txertatu beharreko testuak idaztea. Errotuluak. Kartelak. Azpigituluak. Deskribapen objektiboa.
- Audiodeskribapeneko bunbuiloak.

6IE: Ikus-entzunezko lanen edo zuzeneko ikuskizunen audiodeskribapen-gidoiak egiaztatzen ditu, denbora-kode ezarriekin, lanaren edo ikuskizunaren garapenarekin eta audiodeskribapen-araudien betekizunekin bat ote datozen aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Deskribatutako ikus-entzunezko lanaren ezaugarrietarako eta helburuko publikorako (haurrak, gazteak, helduak) egokia den terminologia erabiltzen dela egiaztatu da.
 - b) Audiodeskribapen-gidoiaren testuan kakofoniarik edo erredundantziarik ez dagoela egiaztatu da.
 - c) Audiodeskribatutako egoera bakoitzean arau espazio-tenporala aplikatzen dela egiaztatu da.
 - d) Irudiarekiko inkoherentziarik, elkarrizketa-gainjartzerik edo informazio aurreraturik ez dagoela egiaztatu da.
 - e) Testu, errotulu edo azpigitulu interlinguistikokoak audiodeskribapen-gidoian sartu direla egiaztatu da.
 - f) Gidoiak indarrean dagoen audiodeskribapeneko arau teknikoaren jarraibideak betetzen dituela egiaztatu da.
 - g) Audiodeskribapen-gidoiak behin betiko denbora-markak gehituta dituela egiaztatu da.
 - h) Audiodeskribapen-gidoian beharrezkoak diren zuzenketak eta hobekuntzak aplikatu dira.
- Edukiak: Ikus-entzunezko lanen eta zuzeneko ikuskizunen audiodeskribapen-gidoiak egiaztatzea.

- Deskribatutako ikus-entzunezko lanaren ezaugarrietarako eta helburuko publikorako (haurrak, gazteak, helduak) egokia den terminologia erabiltzen dela egiaztatzea. Hizkuntza ulertzea eta herritarren identitate-balioak errespetatzea.
- Gidoiko kakofoniak eta erredundantziak zuzentzea. Hizkuntza-baliabideak aplikatzea: sinonimoak erabiltzea, hitzen ordena aldatzea edo elkarren artean urruntzea, aditz-denborak edo gramatika-numeroa aldatzea, esaldiaren erredakzioari bira bat ematea, besteak beste.
 - Espazioari eta denborari buruzko araua aplikatzea. Jarraitutasunaren edo jarraitutasunik ezaren aldagaiak.
 - Irudiarekiko inkoherentziak, elkarrizketa-gainjartzeak edo informazio aurreratura zuzentzea.
 - Behin betiko denbora-markak gehitzen direla egiaztatzea. Gidoia azken entseguetan aldatzea.
 - Audiodeskribapenari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzea.

2. lanbide-modulua: Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen azpigituluak.

Kodea: 5008.

Iraupena: 143 ordu.

ECTS kredituak: 8.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

11E: Azpituak egiteko proiektuen bideragarritasuna ebaluatzen du, grabatutako ikus-entzunezko materialaren edo zuzeneko ikuskizunaren eta ekitaldiaren ezaugarri teknikoak, helburuko pertsonen premiak eta aplikatzekoa den araudia aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Grabatutako prestaketa-materialaren bideo- eta audio-kalitatea egiaztatu da, hala badagokio denbora-kodea egokituz.
- b) Elkarrizketa, *cue list* eta soinu-efektuen zerrenda egiaztatu da, denbora-kodearekiko korrelazioa egiaztatuz.
- c) Produktuaren ikus-entzunezko edukia lan egiteko formatu egokian jarri da, honako ezaugarri hauek kontuan hartuta: tamaina, kalitatea, formatu-ratioa (4/3, 16/9, 16/9 *Letterbox*) eta euskarria.
- d) Landuko den ikus-entzunezko produktuaren edukia eta soinu-ingurunea (grabatua edo zuzeneko) aztertu dira, azpituazio-araudia egokitze aurrerak kontuan hartuta.
- e) Gorren eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonen premiak aztertu dira, azpituazio-proiektuak egiteko prozesuetan kontuan hartuz.
- f) Azpituak egiteko etapak eta prozesuak aztertu dira, baita parte hartzen duten pertsonen funtzioak ere, erabiliko den teknika aukeratuz (berresatea, idatzizko azpituazioa, estenotipia, ahots-ezagutza, besteak beste).
- g) Zuzeneko erreprodukzio-agertokia izango denaren ezaugarriak identifikatu dira (TB, antzerkia, kongresuak, besteak beste).
- h) Azpituazio-proiektuei aplikatutako bideragarritasun teknikoaren txostenak egin dira.

Edukiak: Azpituak egiteko proiektuak ebaluatzea.

- Grabatutako ikus-entzunezko produktuaren ezaugarri teknikoak aztertzea azpituaziorako. Azpituatzeko aplikazio informatikoen bidezko bistaratzea, bideo-fitxategien formatu-motak eta haien formatu-ratioa.
- Zuzeneko ikuskizunen ezaugarri teknikoak aztertzea azpituaziorako.
- Gorrek eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonen informazioa eskuratzeari dagokionez dituzten premiak.
- Azpituak egiteko etapak eta prozesuak. Oharpenak eta elkarrizketarekin zerikusirik ez duten elementuak ezabatzea.
- Azpituak egiten parte hartzen duten profesionalen funtzioak.
- Azpituazio-tekniken ezaugarriak: idatzizkoa, berresatea, estenotipia, ahots-ezagutza.
- Azpituazio-proiektuen bideragarritasunari buruzko txostenak egitea. Langileen kopurua eta kostua. Denboraren, emisio-ordutegiaren eta emisio-bitartekoaren eragina.

21E: Ikus-entzunezko produktuaren eta zuzeneko ikuskizunen elkarrizketari, off-eko ahotsari, musikari eta soinu-efektuari buruzko alde aurretiko dokumentazioa lantzen du, mezuaren intenzionalitatea eta erabilitako hizkuntza aztertuz eta irakurketa-abiadurara eta azpituazio-araudira egokitzen diren aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gidoia egiaztatu da, eta edukia grabatutako ikus-entzunezko produktuarekin konparatu da, beharrezko zuzenketak eginez.
- b) Zuzeneko ikuskizuneko libretoaren edo gidoiaren edukia aztertu da, elkarrizketaren, musikaren eta abestien azpituak zein unetan integratuko diren identifikatuz.
- c) Elkarrizketak azpituatzeko softwarea irauli dira edo, bestela, zuzenean transkribatu dira, pantailan behar den irakurketa-abiadura baloratuz.
- d) Azpituak ezartzeko produktuaren elkarrizketetan erabilitako hizkuntza eta mezuaren intenzionalitatea aztertu dira.
- e) Pertsonaia nagusien eta bigarren mailako pertsonaien zerrenda egin da, eta koloreak esleitu

zaizkie azken produktuan begiz identifikatzeko, irudiaren luminantzia eta tonuekin irakurgarritasuna aurreikusiz.

f) Off-eko ahotsa, musika eta soinu-efektuen zerrenda egin da denbora-kodearekiko, azpitoluziorako.

g) Informazio gehigarria bildu da azpitoluziatu beharreko azken produktuan sartzeko, egindako ikuskatze azkarren emaitzen arabera.

h) Erabiltzaileen eta azken erabiltzaileen premiak eta azpitoluzio estandarrerako edo entzumen-desgaitasunerako aplikatutako tratamendua erlazionatu dira.

i) Lortuko den azken produktuaren ezaugarriak identifikatu dira (DCP, zuzeneko TB programa, antzerki-lana, kongresua, ikus-entzunezko edukia biltegiatzeko euskarriak, *Youtube*, besteak beste).

Edukiak: Ikus-entzunezko produktuen eta zuzeneko ikuskizunen alde aurreko dokumentazioa lantzea.

- Ikus-entzunezko produktuen eta zuzeneko ikuskizunen gidoiak aztertzea.
- Azken produktuaren formatuak eta ezaugarriak. Agertokia (telebista, antzerkia, kongresua...) proiektuaren baldintzatzaile gisa.
- Ikus-entzunezko baten soinu-bandan parte hartzen duten elementuak. Elkarrizketak, off-eko ahotsa, abestiak, musika eta soinu-efektuak.
- Azpitoluzioaren softwarearen bidez elkarrizketak iraultzea.
- Azpitoluzioari buruz indarrean dagoen araudi teknikoa aplikatzea. UNE arauak.
- Azpitoluzioaren hautematearen eta irakurtzearen ezaugarriak. Esposizio-abiadura.
- Azpitoluzio estandarra eta irisgarritasunerako azpitoluzioa. Soinu-efektuak dituzten azpitoluzioen posizioa pantailan.
- Ikus-entzunezko produktuetan eta zuzeneko ikuskizunetan erabilitako hizkuntzaren ezaugarriak eta elkarrizketaren intentsionalitatea aztertzea.
- Pertsonaien zerrendak prestatzea eta koloreak esleitzea. Kolorea edo etiketa egiaztatzea.
- Koloreen irakurgarritasuna, irudiaren hondoaren arabera.
- Produktuari buruzko informazio gehigarria biltzea: gaia, zuzendaritza-lanak eta beste batzuk.

3IE. Grabatutako ikus-entzunezko lanetako azpitoluzioak idazten ditu, soinu-mezuaren osotasuna aztertuz eta bistaratzearen parametroetara eta azken produktuaren erritmo narratibora egokituz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Azpitoluzio-unitateen testua sortu da, sarrerako eta irteerako denbora-kodearekin, azpitoluzioaren softwarea aplikatuz.

b) Azpitoluzio-unitateak egokitu dira, azken hartzailea den kolektiboaren premien arabera.

c) Azpitoluzio-unitate bakoitzari beharrezko formatu-ezaugarri bisualak esleitu zaizkio (posizioa, kolorea, etiketak, besteak beste), irudiaren ezaugarrien arabera.

d) Ahozko berbaldiak behar bezala transkribatu dira, koherentziaz eta hizkuntza-zuzentasunez.

e) Zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin transkribatu dira elkarrizketa, musika eta soinu-efektuen azpitoluzioak, entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako azpitoluzio-arau teknikoak aplikatuz eta mekanografia, estenotipia, ahots-ezagutzako teknologiak, berresatea edo azpitoluzioa kudeatzeko beste erreminta batzuk erabiliz.

f) Azpitoluzioaren pertsonaien elkarrizketekin, musikarekin eta soinu-efektuekin sinkronizatu dira, indarrean dagoen araudiaren betekizunen arabera.

g) Azpitoluzioaren fitxategia ikus-entzunezko produktuaren denbora-kodearekin sinkronizatu da.

h) Azpitoluzioaren testua irakurtzeko baldintzetara egokitu da, eta errespetatu egin dira pertsonaien hizkera berezia, testuaren ulergarritasuna, ikus-entzunezko lanaren intentsionalitatea eta erritmo narratiboa.

i) Indarrean dagoen araudi teknikoa eta azpitoluzioaren kalitate-parametroak betetzen direla egiaztatzen da.

Edukiak: Grabatutako ikus-entzunezko lanen azpitoluak idaztea.

- Azpitoluen testua sortzea eta irudiaren eta azken erabiltzaileen baldintzetara egokitzea.
- Azpitolu bakoitzaren behin betiko formatua sortzea, irudiaren ezaugarrien arabera. Plano-aldaketetara, isiluneetara eta interpretazio-etenaldietara egokitzea.
- Azpitoluak idaztea mekanografia, estenotipia, berresatea, ahots-ezagutzako teknologiak eta azpitoluak sortzeko beste erreminta batzuk erabiliz.
- Azpitolazio interlinguistikoaren berezko teknikak eta baliabideak eta estrategia komunak erabiltzea ahozko berbaldiak egokitzeko.
- Azpitoluak ahozko mezuaren literalasuna errespetatuz idaztea.
- Azpitoluak idaztea arau ortografikoak eta gramatikalak aplikatuz eta ikus-entzunezko lanaren hizkera, mezua eta soinu-testuingurua errespetatuz. Testuaren ulergarritasunaren araberrako salbuespenak.
- Azpitoluetako testuak ikus-entzunezko lanaren garapenarekin eta denbora-kodearekin sinkronizatzea. Sarrerako eta irteerako denborak bat etortzea elkarriketen, musikaren eta soinuen hasierarekin eta amaierarekin.

4IE. Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien azpitoluen emisioa eta abiaraztea egiten ditu, berresate- edo estenotipia-teknikak aplikatuz eta ikuskizunean edo ekitaldian zehar izandako kontingentziei erantzunez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Azpitolatzaileen eta kabinen edo beharrezkoak diren beste baliabide batzuen kopurua zehaztu da, zuzeneko ikuskizunaren ezaugarrien eta entseguen garapenaren arabera.
- b) Erabiliko diren ekipoen eta premia tekniko guztien erabilgarritasuna egiaztatu da.
- c) Zuzeneko ikuskizuna zuzenean azpitolatu da, ekitaldia garatzeko baldintzei berresate- edo estenotipia-teknika aplikatuz.
- d) Erdizuzenean erreproduzitzeko azpitolazio-fitxategi osoa egin da, zuzenean azpitolatzeko software espezifikoak aplikatuz.
- e) Zuzenean abiarazteko integrazio- eta muntatze-proba teknikoak egiaztatu dira, entseguen garapenaren arabera.
- f) Zuzenean egin da azpitolazio-fitxategiaren eskuzko edo lagundutako sinkronizazioa, ikuskizuna zuzenean egin bitartean egindako entzute aktiboaren bidez.
- g) Zuzeneko azpitolazioaren ebaluazioa egin da, etorkizuneko jarduketetan aplikatzeko.

Edukiak: Zuzeneko ikuskizunen azpitoluen emisioa eta abiaraztea.

- Zuzeneko ikuskizunak abiarazteko giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztea. Lanaren ezaugarriak eta aurretiazko proben edo entseguen emaitzak.
- Zuzenean azpitolatzeko ekipoen erabilgarritasuna egiaztatzea. Lana egin aurretik egoera berrikustea.
- Zuzeneko ikuskizunetako eta ekitaldietako azpitoluen zuzeneko berresatea edo estenotipia. Aurrez grabatutako audio-klipak. Atzerapenak. Transmittuko den informazioaren fidelitatea eta kopurua.
- Azpitoluak zuzenean abiarazteko proba teknikoak eta entseguak. Azpitoluak kolektibo hartzailearen irakurketa-abiadurara egokitzea. Integrazio- eta muntatze-tekniken bidez aurretiazko egiaztapenak egitea.
- Azpitoluak eskuz edo lagunduta sinkronizatzea. Abiarazitako azpitoluak. Zuzenean berresandako azpitoluak. Zuzeneko azpitolaziorako software espezifikoak. Kontingentziei erantzutea.
- Ikuskizunaren azpitolazioa ebaluatzea. Hobekuntza. NER ereduak.

5IE. Azken produktuan integratutako azpitoluen ulermena ebaluatzen du, gorren eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonen pertzepzio-ezaugarriak aztertuz eta mezuaren egokitasun sintaktiko

eta ortografikoa baloratuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Azpitolazio-fitxategia berrikusi da, besteak beste testuan, hizketan, egokitzapenean, denbora-kodean eta iraute-denboran izan daitezkeen erroreak zuzenduz.

b) Telebista-programa, film eta zuzeneko ikuskizun azpitolatuen kalitate-kontrola egin da, zehaztasunaren ehunekoa eta transmitutako informazio-kantitatea baloratuz eta etorkizuneko produktuak hobetzeko txosten bat prestatuz.

c) Egiaztatu da azpitolu bakoitzak erabiltzen dituen lerroen eta karaktereen kopurua bat datorrela azpitolazio-arauan ezarritako pertzepzio-baldintzekin, irakurketa erraztuz.

d) Karaktereen eta ingerada edo kutxaren arteko kolore-kontraste egokia egiaztatu da, bai eta pertsonaien artean ezarritako kolore-koordinatuen desberdintasuna ere.

e) Egiaztatu da pertsonaia bakoitzarentzako testu-lerro desberdinen esleipenak eta pantailan testuaren esposizio-abiadurak ikus-entzunezko produktuaren edo ikuskizunaren erritmoari jarraitzen diotela.

f) Soinu-efektuen azpitoluak pantailan posizio egokia duela egiaztatu da.

g) Azpitoluak pertsonaien ezpainen mugimenduetekin eta plano-aldaketekin sinkronia egokia duela egiaztatu da, atzerapenak minimizatuz.

h) Musikaren azpitoluak musika-mota, piezaren identifikazioa eta transmititu nahi den sentsazioa deskribatzen dituztela egiaztatu da; eta, inoiz, letra ere bai, pieza ulertzeko garrantzitsua bada.

i) Azpitoluetan bete egin dira azpitolazioari dagokionez indarrean dagoen araudi teknikoaren zehaztapenak.

Edukiak: Azken produktuan integratutako azpitoluak indarrean dauden arau teknikoetara egokitzen direla ebaluatzea.

– Azpitolazio-fitxategiko erroreak zuzentzea. Errore linguistikoak eta errore teknikoak, hala nola denbora-kodeak gainjartzea eta iraupen laburreko azpitoluak.

– Telebista-programa, film eta zuzeneko ikuskizun azpitolatuen kalitate-kontrola. Doitasuna. Informazio-kantitatea. Ehunekoa. Txostenak egitea.

– Testuaren, posizioaren eta kontrastearen formatuak egiaztatzea, azpitolazio-arauaren arabera. Azpitolu bakoitzaren irakurketa eta ulermena ziurtatzen duen karaktere- eta lerro-kopurua.

– Testuaren abiadura eta iraupena egiaztatzea, irakurketa errazteko elementu gisa. Iraupen laburreko azpitolu ororen irakurketa-abiadura zuzentzea.

– Azpitolazioak pertsonaien ezpainen mugimenduetekin eta plano-aldaketekin duen sinkronia zuzentzea. Ondoz ondoko azpitoluen arteko denbora-kodearen gainjartzeak zuzentzea. Bi lerroko azpitoluetan hitzen eta sintagmen banaketa berrikustea.

– Abestien, musikaren, soinu-efektuen eta segmentu gaineko elementuen deskribapena egiaztatzea, indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera. Espainiako Azpitolazioaren eta Audiodeskribapenaren Zentroko (CESyA) kalitate-zigiluak.

3. lanbide-modulua: Lokuzioa, autoretza eta audionabigazioa.

Kodea: 5009.

Iraupena: 78 ordu.

ECTS kredituak: 4

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

11E: Audiodeskribapen-gidoien lokuzioa egiten du, lokuzio-teknikak aztertuz eta erritmoa eta intonazioa grabatutako ikus-entzunezko lanaren garapenera egokituz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Audiodeskribapen-gidoiaren eraikuntza egokia egiaztatu da, lokuzio egokirako behar diren

puntuazioak egokituz.

- b) Lokuzio mikrofonikorako arnasketa-teknika eta jarrerarik egokienak aztertu dira.
- c) Audiodeskribapen-gidoiaren irakurketa-teknikak aztertu dira, eta soinu-planoaren intentsitatea mantendu da lokuzioan zehar.
- d) Audiodeskribapen-gidoiaren lokuzioa egin da, ebakeraren kalitatea zainduz eta hura narrastu dezaketen zaratak saihestuz.
- e) Audiodeskribapen-gidoiaren lokuzioa egin da, soinu-mezuaren bokalizazioaren eta artikulazioaren kalitatea zainduz.
- f) Audiodeskribapen-gidoiaren lokuzio neutroa egin da, tonua filmaren une dramatikoetara egokituz, audiodeskribapen-bunbuiloak interpretatu gabe.
- g) Autoretza atzigarriko pantaila eta botoi guztien lokuzioa egin da.
- h) Lokuzio-bunbuiloen eta mezu-hutsarteen arteko erlazio egokia egiaztatu da.
- i) Edukien bunbuiloen lokuzioa egitean edo lerroburuen bunbuiloena egitean tonu-bereizketa egiaztatu da.

Edukiak: Audiodeskribapen-gidoien lokuzioa egitea.

- Gidoia lokuzioari egokitzen zaiola egiaztatzea. Informazio-bunbuiloen puntuazioa eta egitura berrikustea.
- Arnasketa- eta jarrera-teknikak.
- Audiodeskribapen-gidoia irakurtzeko teknikak. Soinu-planoen intentsitatea lokuzioan zehar.
- Ebakera eta bokalizazioa. Soinu-mezua artikulatzea. Zaratak saihestea.
- Lokuzio neutroko teknikak. Erraztasun- eta eraginkortasun-irizpideak (lanean integratzea, haren asmo eta erritmoan, lokuzio neutroa eta hizkuntzaren berezko musikaltasuna galdu gabe). Ahots-inpostazioa.
- Autoretza atzigarriko pantailen eta botoien lokuzioa. Tonua bereiztea edukien bunbuiloen lokuzioa egitean edo lerroburuen bunbuiloena egitean. Lokuzioa bigarren pertsona batek egitea edo tonu desberdinean irakurtzea.

2IE: Zuzeneko audiodeskribapen-gidoien lokuzioak egiten eta abiarazten ditu, erritmoa eta intonazioa zuzeneko ikus-entzunezko lanaren garapenera egokituz eta zuzenekoaren kontingentziei erantzunez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Audiodeskribapen-gidoiaren eraikuntza egokia egiaztatu da, zuzeneko lokuzio egokirako behar diren puntuazioak egokituz.
- b) Gidoi-sarreraren lokuzioa egin da, eszenografiari, jantziei, fitxa tekniko eta artistikoei eta lanaren aurretiko iruzkinei buruzko datu egokiekin, behar adinako aurrerapen eta errepikapenekin.
- c) Zuzeneko lokuzioa egin da, betiere soinu-mezuan ebakera-kalitatea, zuzeneko edo giroko zarata posibleen interferentziak, eta bokalizazio- eta artikulazio-kalitatea zainduz.
- d) Zuzeneko lokuzioaren tonua indarrean dagoen audiodeskribapen-araudi teknikoan eskatzen den neutraltasunera egokitu da, zuzeneko ikuskizun edo ekitaldi osoan mantenduz.
- e) Zuzeneko audiodeskribapen-gidoiaren irakurketaren tonua zuzeneko ikuskizunaren edo ekitaldiaren garapenera egokitu da, kontingentziei erantzun azkarra emanaz.
- f) Edukien bunbuiloen lokuzioa egitean edo zuzeneko ikuskizunaren edo ekitaldiaren sarrerarena egitean tonua aldatu da.
- g) Zuzenean abiarazi dira gidoidun ikuskizunetan (hala nola antzerki-lanak, telebista-programak eta ekitaldiak) aurrez grabatutako audiodeskribapen-klipak.

Edukiak: Audiodeskribapen-gidoien zuzeneko lokuzioa egitea eta abiaraztea.

- Grabatutako eta zuzeneko produktuen lokuzioaren ezaugarrien arteko konparazioa. Soinu- eta edizio-estudio batean grabatzea, emisioa egiteko grabatutako ikus-entzunezko fitxategiko soinu-

bandarekin batera.

- Gidoiko sarreraren eta alde zuzeneko iruzkinen lokuzioa, zuzeneko ikuskizunetako eta ekitaldietan. Eszenografia, jantziak, fitxa tekniko eta artistikoak.
- Zuzeneko lokuzioaren tonua audiodeskribapen-araudi teknikoan eskatzen den neutraltasunera egokitzeko teknikak. Kontingentzietan erantzutea. Tonua zuzeneko ikuskizunaren zatien arabera aldatzea. Ahoskatzea eta bokalizatzea. Hiztunaren asmoa eta alderdi prosodikoen (hala nola intonazioa, etenaldiak, etab.) informazio-osagaiak identifikatzea.
- Aurrez grabatutako audiodeskribapen-klipak laguntzako softwarearen bidez abiaraztea. Entseguak.

3IE: Azpitoluak eta audiodeskribapenak azken produktu grabatuetan integratzen ditu, azken produktuen formatuen ezaugarriak aztertuz eta soinua grabatzeko eta audioa eta bideoa editatzeko teknikak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Azpitoluen formatuaren bideragarritasuna azken euskarria kontuan hartuta egiaztatu da: edukia biltegitzeko euskarrietarako autoretza desberdinak; ikus-entzunezkoak, TB-emisioa edo zinema-proiektzioak, 35 mm, digitala edo kapsulatutako azpitolua, Internet eta txertatuta dauden multimedia erreproduzigailuak.
- Audiodeskribapenaren lokuzioa grabatu da, editatuz eta produktu grabatuaren soinu-bandaren azken kopian txertatuz.
- Ikus-entzunezko lanaren grabazioa editatu da, audiodeskribapen-gidoian adierazitako denbora-kodea aplikatuz.
- Azpitoluak sinkronizatu dira, besteak beste testuan, hizketan, egokitzearen, denbora-kodean eta iraute-denboran izan daitezkeen erroreak zuzenduz.
- Azpitoluen pista helburuko euskarriari dagokion formatura esportatu da, ezarritako kolore-kodeak ahal den neurrian errespetatuz.
- Audiodeskribapena soinu-bandarekin nahasteko edo lokuzio garbirako prestatu da, azken euskarriaren arabera, banaketarako edo emisiorako egokiak diren seinale-mailak aplikatuz.
- Azpitoluak irudian txertatu dira, helburuko formatuak azpitoluak irekian bakarrik onartzen dituen kasuetarako, indarrean dagoen azpitolazio-araudia errespetatuz.
- Ikus-entzunezko edukien biltegitze-euskarriekin edo bestelako erakusketa-sistemekin honakoak egiteari buruzko parametro teknikoak eta truke-protokoloak aplikatu dira: bikoiztuak, segurtasun-kopiak, emanaldi zinematografikorako kopiak, telebista-operadoreentzako emisio-kopiak, Interneteko edukien deskargatzekoak eta masterizatzeak.

Edukiak: Azpitoluak eta audiodeskribapenak azken produktu grabatuetan integratzea.

- Azpitolu-formatuaren bideragarritasuna egiaztatzea, azken euskarria kontuan hartuta. Honako edukia biltegitzeko euskarrietarako autoretza desberdinak: ikus-entzunezkoak, TB-emisioa edo zinema-proiektzioak, 35 mm, digitala edo kapsulatutako azpitolua, Internet eta txertatuta dauden multimedia erreproduzigailuak.
- Audiodeskribapenaren lokuzioa grabatzeko eta editatzeko teknikak. Soinu-bandaren azken kopian integratzea.
- Azpitoluak sinkronizatzea. Besteak beste testuan, hizketan, egokitzearen, denbora-kodean eta iraute-denboran dauden erroreak zuzentzea.
- Audiodeskribapenaren azken nahasketa soinu-bandan. Lokuzio garbia. Bideo-pista. Seinale-mailak.
- Azpitoluen pista helburuko euskarriari dagokion formatura esportatzea (ikus-entzunezko edukia biltegitzeko euskarriak, *Youtube*, web-kanalak, pantailako telefonia eta TB, besteak beste).
- Ikus-entzunezko edukien biltegitze-euskarriekin edo bestelako erakusketa-sistemekin honakoak egiteari buruzko protokoloak: bikoiztuak, segurtasun-kopiak, emanaldi zinematografikorako kopiak, telebista-operadoreentzako emisio-kopiak, Interneteko edukien deskargatzekoak eta

masterizatzekoak.

4IE: Audiodeskribatutako eta azpitolatutako ikus-entzunezko lanak ebaluatzen eta gainbegiratzen ditu, ulergarritasun akustikoa eta soinu-mezuaren ulergarritasuna aztertuz eta azken produktuaren kalitate-kontrola aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ulergarritasun akustikoari eta mezuaren ulergarritasunari buruzko alderdiak egiaztatu eta zuzendu dira, proposatutako enkarguaren arabera.

b) Informazio-bunbuiloen kokapen zehatza egiaztatu da, denbora-kodeen arabera.

c) Bunbuiloen egiazkotasuna eta suposiziorik eza egiaztatu dira.

d) Grabatutako audiodeskribapen-fitxategia bezeroen eskakizunetara egokitzen dela egiaztatu da.

e) Audio-mailak, elkarrizketekin gerta litezkeen gainjartzeak eta audiodeskribapenari buruz indarrean dagoen araudi teknikoaren zehaztapenak egiaztatu eta zuzendu dira.

f) Azpitolatutako azken produktuaren kalitate-kontrola egin da, elementu hauei dagokienez: kolore-kodea, azpitoluak egoki irakurtzeko luzera eta banaketa, behar adinako esposizio-denbora, soinu-efektuak eta musika, segmentu gaineko elementuak, azpitoluen posizioa pantailan, besteak beste.

g) Audiodeskribatutako azken produktuaren kalitate-kontrola egin da, elementu hauei dagokienez: gainjartzeak, ebakera, intonazioa, lokuzio-abiadura eta mailak, besteak beste.

Edukiak: Audiodeskribatutako eta azpitolatutako ikus-entzunezko lanak ebaluatzea eta gainbegiratzea.

– Ulergarritasun akustikoa egiaztatzea. Soinu-mezua ulertzea.

– Informazio-bunbuiloen kokapena egiaztatzea. Denbora-kodeak.

– Bunbuiloen egiazkotasuna eta suposiziorik eza egiaztatzea.

– Grabatutako audiodeskribapen-fitxategiaren ezaugarriak proposatutako formatuaren eskakizunekin egiaztatzea.

– Audio-mailen zuzentasuna egiaztatzea. Elkarrizketekin gainjartzea. Audiodeskribapenari buruz indarrean dagoen araudi teknikoaren zehaztapenak.

– Azpitolatutako azken produktuaren kalitate-kontrola. Kolore-kodea. Azpitoluetako letra edo karaktereen eta ingerada edo kutxaren arteko kolore-kontrastea berrikustea. Azpitoluak egoki irakurtzeko luzera eta banaketa, behar adinako esposizio-denbora, soinu-efektuak eta musika, segmentu gaineko elementuak, eta azpitoluen posizioa pantailan.

– Audiodeskribatutako azken produktuaren kalitate-kontrola. Gainjartzeak, ebakera, intonazioa, lokuzio-abiadura eta mailak.

5IE: Audiodeskribatutako eta azpitolatutako ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak sortzen ditu, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatuz eta azken hartzailea den kolektiboaren irisgarritasuna erraztuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pantailak sortzea sinplifikatu da, pantaila eta botoi bidezko nabigagarritasuna eta diseinubaldintzak pertsona guztientzako erraztuz.

b) Botoien eta ekintzen arteko interakzioak egiaztatu eta inplementatu dira autoretzan.

c) Lokuzioen eta lokuzio-objektu diren pantailen eta botoien arteko korrespondentzia egiaztatu eta inplementatu da, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunari eta pertsona guztientzako diseinubaldintzei erantzuna emateko.

d) Letren eta hondoaren arteko kontrastea egiaztatu da, botoiak eta pantailetak gainerako informazioak behar bezala irakurtzeko aukera emanez, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun-baldintzak eta pertsona guztientzako diseinubaldintzak kontuan hartuta.

e) Ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak aztertu dira, azken hartzailea den kolektiboaren irisgarritasuna eta pertsona guztientzako diseinu-baldintzak erraztuz.

f) Formatuen eta euskarrien arteko erlazioa eta bihurketa aztertu da (TB, ikus-entzunezko edukia biltegitratzeko euskarriak, *Youtube* edo ikus-entzunezko edukia eskaintzen duten beste plataforma batzuk, besteak beste).

g) Audionabigazioa ahalbidetzeko beharrezkoa den autoretza sortu da ikus-entzunezko edukia biltegitratzeko euskarrietan, pantailak, botoiak eta haien arteko interakzioak kontuan hartuz eta testerako, ebaluaziorako, sustapenerako eta beste helburu batzuetarako kopiak lortuz.

h) Autoretzak audionabigazioarekin eta gabe behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzen da.

i) Dokumentazioa prestatu da ikus-entzunezko produktuaren edo ingurune interaktiboaren baliabideak, metadatuak eta datuak artxibatzeke.

Edukiak: Audiodeskribatutako eta azpigitulatutako ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak sortzea.

– Audiodeskribatutako eta azpigitulatutako ikus-entzunezko produktuaren pantailak sortzea. Nabigagarritasuna. Pantailak eta botoiak.

– Autoretzan botoien eta ekintzen arteko interakzioak egiaztatzea. Ikuskatzea.

– Lokuzioen eta lokuzio-objektu diren pantailen eta botoien arteko korrespondentzia egiaztatzea. Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna. Autoretza jakin bateko pantailen eta botoien kopurua sinplifikatzea.

– Letren eta hondoaren arteko kontrastea egiaztatzea, botoiak eta pantailetak gainerako informazioak behar bezala irakurtzeko. Entzumen-desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna.

– Ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak aztertzea. Irisgarritasuna, azken hartzailea den kolektiboaren baldintzen arabera. Sare informatikoetan makroak erabiltzea.

– Formatuen eta euskarrien arteko erlazioa eta bihurketa. Telebista, ikus-entzunezko edukia biltegitratzeko euskarriak, *Youtube*, besteak beste. Bateragarritasuna.

– Audiodeskribatutako eta azpigitulatutako ikus-entzunezko produktuen eta ingurune interaktiboaren (bideojokoak, webguneak, besteak beste) autoretza sortzea. Audionabigazioa. Testerako eta sustapenerako kopiak lortzea.

– Pertsona guztientzako diseinua. Aplikagarri diren orientazioak, gomendioak eta araudiak.

– Autoretzak audionabigazioarekin eta gabe funtzionatzen duela egiaztatzea. Pantailak eta botoiak urrutiko agintearen teklen bidez berrikustea.

– Ikus-entzunezko produktuaren edo ingurune interaktiboaren baliabideak, metadatuak eta datuak artxibatzeke dokumentazioa prestatzea.

4. lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza.

Kodea: 5010.

Iraupena: 85 ordu

ECTS kredituak: 9.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

11E. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, audiodeskribapenen eta azpigituluen produkzioarekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren funtzioak identifikatu dira.

b) Enpresaren egitura sektorean dauden ereduak enpresa-antolamenduekin alderatu da.

c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero-mota enpresa-jardueraren garapenarekin erlazionatu dira.

d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu dira.

- e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu dira.
- f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu da.

2IE. Lanbide-jardueran jokabide etikoa izaten du eta lan-ohiturak betetzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu dira:

- Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
- Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
- Jarrerazko eskakizunak, lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
- Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
- Lantaldearekin eta enpresan ezarritako hierarkiekin lotutako jarrerak.
- Lan-eremuan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
- Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduan txertatzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-premiak.

b) Lanbide-jardueran betetzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu dira.

c) Martxan jarri dira norbera babesteko ekipamenduak, lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera.

d) Ingurumena errespetatzeko jarrera izan da egindako jardueretan.

e) Ondo antolatuta, garbi eta oztoporik gabe eduki dira lanpostua edo jarduera egiteko eremua.

f) Esleitutako lanaren gaineko erantzukizuna hartu da, eta interpretatu eta bete egin dira jasotako aginduak.

g) Komunikazio eraginkorra ezarri da egoera bakoitzeko arduradunarekin eta taldearekin.

h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, sortutako gorabeherarik adierazgarrienak komunikatuz.

i) Jardueraren garrantzia eta zeregin-aldaketetara egokitzeko beharra baloratu dira.

j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3IE. Audiodeskribapenak eta azpтитuluak egiteko proiektuen bideragarritasuna ebaluatzen du, grabatutako ikus-entzunezko materialaren edo zuzeneko ikuskizunaren ezaugarri teknikoak eta azken hartzailea den kolektiboaren premiak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Grabatutako prestaketa-materialaren bideo- eta audio-kalitatea egiaztatu da, hala badagokio denbora-kodea egokituz.

b) Elkarrizketen, *cue list*-en eta soinu-efektuen zerrenda egiaztatu da, denbora-kodearekiko korrelazioa egiaztatuz.

c) Produktuaren ikus-entzunezko edukia lan egiteko formatu egokian jarri da, honako ezaugarri hauek kontuan hartuta: tamaina, kalitatea, formatu-ratioa (4/3, 16/9, 16/9 *Letterbox*) eta euskarria.

d) Zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien audiodeskribapena planifikatu da, haien ezaugarriak eta prozesuaren etapak ebaluatuz eta gidoi egituratuak edo inprobisatuak aztertuz.

e) Audiodeskribapenak eta azpтитuluak egiteko etapak eta prozesuak aztertu dira, baita parte hartzen duten pertsonen funtzioak ere, erabiliko den teknika aukeratuz.

f) Ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonen premiak aztertu dira informazioa kanal alternatiboetan transmititzeko, audiodeskribapen- eta azpтитulazio-proiektuak egiteko prozesuetan aplikatuz.

g) Audiodeskribapen- eta azpтитulazio-proiektuei aplikatutako bideragarritasun teknikoaren txostenak egin dira.

4IE. Ikus-entzunezko lanen eta zuzeneko ikuskizunen audiodeskribapen-gidoiak egiten ditu, lanaren ezaugarriak aztertuz eta soinu-mezuko hutsarteetara (bunbuiloak) eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen premietara eta produktuaren garapenera egokituz.

a) Ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren eszenen xehetasunei eta deskribapenei buruzko dokumentazioa landu dira, hainbat iturritako informazio gehigarria bilduz audiodeskribapenean integratzeko.

b) Informazio-bunbuiloak audiodeskribapen-softwarea aplikatuz idatzi dira, bideoaren denbora-kodeari dagozkion denbora-markak adieraziz.

c) Informazio bisuala objektiboki deskribatu da, irudiak erakusten duena zentsuratu edo aldatu gabe eta bilbea azaldu edo aurreratu gabe, ikuspegi subjektiborik ez transmititzeko.

d) Audiodeskribapen-gidoian txertatuko diren off-eko ahotsaren testuak idatzi dira, ikus-entzunezko lanaren erritmoa errespetatuz eta ikus-entzunezko lanaren lengoaia zinematografikoari lagunduz.

e) Grabatutako ikus-entzunezko lanen audiodeskribapen-gidoiak idatzi dira, lokuziorako eta bideoan eskuragarri dagoen denborarako egokituz.

f) Audiodeskribapen-gidoia berridatzi da, ikuskizunaren edo ekitaldiaren entseguen garapenean adierazitako zuzenketak aplikatuz.

g) Zuzeneko ikuskizunaren audiodeskribapeneko gidoi-eskaleta egin da, transmititu beharreko informazioa eta haren denborak adieraziz.

h) Agertoki-espazioaren ezaugarri esanguratsuenen deskribapena idatzi da, zuzeneko lana hasi aurretik transmititzeko.

i) Zuzeneko edo grabatutako audiodeskribapen-gidoien lokuzioa egin da, erritmoa eta intonazioa zuzeneko ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren garapenera egokituz, eta jatorrizko soinu-bandaren (BSO) eta audiodeskribapen-bandaren denbora-koherentzia mantenduz.

5IE. Grabatutako ikus-entzunezko lanen eta zuzeneko ikuskizunen azpitoluak idazten eta abiarazten ditu, soinu-mezuaren osotasuna aztertuz eta bistaratzearen parametroetara, kolektibo hartzailearen premietara eta produktuaren garapenera egokituz, indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera.

a) Azpitoluzio-unitate bakoitzari beharrezko formatu-ezaugarri bisualak esleitu zaizkio (posizioa, kolorea, etiketak, besteak beste), irudiaren ezaugarrien arabera.

b) Zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin transkribatu dira elkarrizketa, musika eta soinu-efektuen azpitoluak, entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako azpitoluzio-arauak aplikatuz eta mekanografia-teknikak erabiliz.

c) Azpitoluuen testua irakurtzeko baldintzetara egokitu da, pertsonaien hizkera berezia, ikus-entzunezko lanaren intenzionalitatea eta erritmo narratiboa errespetatuz.

d) Azpitoluak pertsonaien elkarrizketekin, musikarekin eta soinu-efektuekin sinkronizatu dira, mezuaren ulergarritasuna mantenduz eta kolektibo hartzailearen irakurketa-abiadura kontuan hartuz.

e) Azpitoluuen fitxategia ikus-entzunezko produktuaren denbora-kodearekin sinkronizatu da.

f) Zuzeneko ikuskizuna zuzenean azpitolatu da, ekitaldia garatzeko baldintzei berresate- edo estenotipia-teknika aplikatuz.

g) Zuzenean egin da azpitoluzio-fitxategiaren eskuzko edo lagundutako sinkronizazioa, ikuskizuna zuzenean egin bitartean egindako entzute aktiboaren bidez.

h) Egiaztatu da azpitoluuek betetzen dituztela indarrean dagoen araudi teknikoaren zehaztapenak.

6IE. Audiodeskribatutako eta azpitolatutako ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak sortzen ditu, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatuz eta azken hartzailea den kolektiboaren irisgarritasuna erraztuz.

a) Pantailak sortzea sinplifikatu da, pantaila eta botoi bidezko nabigagarritasuna eta diseinu-baldintzak pertsona guztientzako erraztuz.

b) Botoien eta ekintzen arteko interakzioak egiaztatu eta inplementatu dira autoretzan.

c) Lokuzioen eta lokuzio-objektu diren pantailen eta botoien arteko korrespondentzia egiaztatu eta inplementatu da, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunari eta pertsona guztientzako diseinu-baldintzei erantzuna emateko.

d) Letren eta hondoaren arteko kontrastea egiaztatu da, botoiak eta pantailetak gainerako informazioak behar bezala irakurtzeko aukera emanez, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun-baldintzak eta pertsona guztientzako diseinu-baldintzak kontuan hartuta.

e) Ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak aztertu dira, azken hartzailea den kolektiboaren irisgarritasuna eta pertsona guztientzako diseinu-baldintzak erraztuz.

f) Audionabigazioa ahalbidetzeko beharrezkoa den autoretza sortu da ikus-entzunezko edukiak biltegitzeko euskarrietan, pantailak, botoiak eta haien arteko interakzioak kontuan hartuz eta testerako, ebaluaziorako, sustapenerako eta beste helburu batzuetarako kopiak lortuz.

g) Autoretzak audionabigazioarekin eta gabe behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu da.

h) Dokumentazioa prestatu da ikus-entzunezko produktuaren edo ingurune interaktiboaren baliabideak, metadatuak eta datuak artxibatuzeko.

5. lanbide-modulua: Prestakuntza Praktiko Duala Enpresan

Kodea: E314

Iraupena: 75 ordu

Enpresan egin beharreko jarduerak espezializazio-ikastaroko konpetentziak eta helburu nagusiak osatzeko helburuarekin programatuko dira, bai ikastetxean eskuratu diren konpetentziei dagokienez, bai ikastetxean eskuratzen zailak direnei dagokienez. Diseinatutako jarduerak honako hauek jaso beharko dituzte:

- Audiodeskribapenak eta azpigituluak egiteko proiektuen proiektu-planak eta bideragarritasun-azterketak egitea.
- Zuzeneko ikus-entzunezko lanen eta ikuskizunen audiodeskribapen-gidoiak eta azpigituluak lantzea eta egiaztatzea.
- Zuzeneko ikus-entzunezko lanen eta ikuskizunen audiodeskribapen-gidoien lokuzioa egitea.
- Audiodeskribatutako eta azpigitulatutako ikus-entzunezko produktuen interakzioaren eta audionabigazioaren ezaugarriak sortzea.
- Audiodeskribatutako eta azpigitulatutako ikus-entzunezko lanak ebaluatzea eta gainbegiratzea.
- Azken produktua sortzea azpigituluak eta audiodeskribapena gehituta dituela.

5. Espazioak eta ekipamenduak.

5.1. Espazioak:

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	AZALERA (m ²) / 30 IKASLE	AZALERA (m ²) / 20 IKASLE
Erabilera anitzeko gela.	60	40
Irudi eta soinu gela teknikoa.	60	40
Muntatzeko eta postprodukzioko gelak.	90	60
Soinu-estudioak.	40	25

5.2. Ekipamenduak:

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Erabilera anitzeko gela.	Sarean instalatutako ordenagailuak, proiektzio-sistema eta Internet. Ikus-entzunezko bitartekoak. Aplikatu beharreko informatika-programak.

<p>Irudi eta soinuuko gela teknikoak.</p>	<p>Bakarkako ordenagailuak, soinua erreproduzitzeko sistemarekin eta pantailekin, sarean ipiniak eta Internetarako sarbidearekin. Proiekzio-pantaila eta soinua erreproduzitzeko sistema duen bideoproiektorea. Laser-inprimagailua. Bulegotikako aplikazio informatikoak (testu-tratamenduko programa, datu-basea, kalkulu-orria eta aurkezpenak). Irudi mugikorra sortzeko, tratatzeko eta editatzeko aplikazio informatikoak. Soinua sortzeko, tratatzeko eta editatzeko aplikazio informatikoak. Azpitoluak sortzeko, tratatzeko eta editatzeko aplikazio informatikoak, azpitoluak sortzeko aplikazioekin erlazionatutako fitxategietarako euskarria dutenak. Zuzenekoetan azpitoluak sortzeko, tratatzeko eta editatzeko aplikazio informatikoak. Berresaterako espezifikoak diren ahots-ezagutzako aplikazio informatikoak. Ikus-entzunezko edukia biltegitatzeko euskarrien autoretzarako aplikazio informatikoak. Mikrofono integratua duten aurikular indibidualak. Baliabideak digitalizatzeko eta kapturatzeko hardwarea/softwarea.</p>
<p>Muntatzeko eta postprodukzioko gelak.</p>	<p>Ordenagailuz, postu bakoitzeko bi pantailez, aurikular bidezko soinu-monitorizazio sistemaz eta ikus-entzunezko edukia biltegitatzeko euskarrien grabagailu/erreproduzizigailuz osatutako edizio-ekipo indibidualak. Ordenagailuen instalazioa sarean eta Internetarako sarbidearekin. Gelan erreproduzitutako soinua monitorizatzeko hedapen-sistema. Irudi finkoa eta mugikorra sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko aplikazio informatikoak. Soinua sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko aplikazio informatikoak.</p>
<p>Soinu-estudioak.</p>	<p>Ikus-entzunezko bikoizketarako 10 m²-ko mintzategia, intsonorizatua eta akustikoki egokitua, honako elementuak dituena: konexio-kutxa, 4 postuko mahaia, 4 mikrofono dinamiko, 4 mahai gaineko euskarri eta 4 monitorizazio-sistema. Bikoizketako 15 m²-ko kontrol-gela, intsonorizatua eta akustikoki egokitua, honako elementu hauek ipintzeko altzari teknikoak dituena: Honako ezaugarri hauek edo hobeak dituen ordenagailu bat: Dual Core 2,5 GHz prozesadorea, bakoitzak 1 MB L2ko cache memoria, PCI Express arkitektura, 4 G SDRAM, FireWire 800 ataka bat, lau USB 2.0 ataka eta wifi-konexioetarako euskarria, AirPort Extreme eta Bluetooth 2.0+E, 1 GBko txartel grafikoa, kanpoko soinu-txartela USB edo FireWire konexioarekin, 2 MIC/INS eta 4 LINE sarrerekin, 19"-ko bi pantaila, CD-MP3ko erreproduzizigailu bikoitza kontrol independentearekin, DAT bat eta minidisk bat. Ordenagailuaren konfigurazioa sarean eta Internetarako sarbidearekin. Audio-seinaleen prozesadoreak: Dinamikako lau prozesadore: Konpresoreak. Mugagailuak. Zarata-atakak. De-esser. Bi ekualizadore parametrikiko. Efektu anitzeko bi prozesadore. Lau mikrofono-aurreko.</p>

6. Irakasleak.

6.1. Audiodeskribapen eta Azpitulazioko espezializazio-ikastaroko lanbide-modulueta irakasteko eskumena duten irakasleen espezialitateak:

LANBIDE-MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
5007. Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen audiodeskribapena.	Komunikazio-prozesuak eta -bideak.	Bigarren Hezkuntzako irakaslea.
	Irudi eta soinuaren teknikak eta prozedurak.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa.
	Irakasle espezialista.	
5008. Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen azpitoluak.	Irudi eta soinuaren teknikak eta prozedurak.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa.
	Irakasle espezialista.	
5009. Lokuzioa, autoretza eta audionabigazioa.	Irudi eta soinuaren teknikak eta prozedurak.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa.
	Irakasle espezialista.	
5010. Lantokiko prestakuntza.	Komunikazio-prozesuak eta -bideak.	Bigarren Hezkuntzako irakaslea.
	Irudi eta soinuaren teknikak eta prozedurak.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa.
E314. Prestakuntza Praktiko Duala Enpresan.	Komunikazio-prozesuak eta -bideak.	Bigarren Hezkuntzako irakaslea.
	Irudi eta soinuaren teknikak eta prozedurak.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa.

6.2. Espezializazio-ikastaroa osatzen duten lanbide-moduluak emateko eskatzen diren titulazioak titulartasun pribatuko ikastetxeetarako eta hezkuntzakoaz besteko administrazioetako ikastetxeetarako, eta hezkuntza-administrazioetarako orientabideak:

LANBIDE-MODULUAK	TITULAZIOAK
5007. Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen audiodeskribapena. 5008. Ikus-entzunezko lanen, ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen azpitoluak. 5009. Lokuzioa, autoretza eta audionabigazioa.	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduako titulua, edo beste zenbait titulu baliokide.